

## NOTA DE PRENSA

# Cáritas Euskadi atendió a 34.690 personas durante 2023

- Señala la dificultad de acceso a la vivienda como el principal problema al que se enfrentan las personas en riesgo de exclusión atendidas por la institución en el territorio autonómico.
- Cáritas pone el foco, además, en la carencia de bienestar emocional y salud mental que acusan muchas personas en situaciones de vulnerabilidad y pobreza.

**Vitoria-Gasteiz, 29 de mayo de 2024.** Previo a la presentación simultánea de los informes de actividad anual correspondientes a las tres Cáritas que conforman Cáritas Euskadi, la entidad ha ofrecido una valoración conjunta tanto de los datos globales destacados, como de las conclusiones que arrojan, de cara a visibilizar aquellos aspectos de las realidades de pobreza detectadas en el territorio de la Comunidad Autónoma Vasca.

El total de las personas atendidas por Cáritas Euskadi en 2023 no ha variado sustancialmente con respecto al año anterior; lo que supone que Cáritas mantiene su volumen de atención en el conjunto del territorio con un total de **34.690 personas atendidas** (34.288, en 2022), de las cuales un **55,3 % fueron mujeres** (56 % en 2022). Algo similar ocurre con **el gasto en ayudas económicas que en 2023 fue de 6.876.831,95€** (6.900.000 en 2022).

### **Dificultad de acceso a vivienda y empadronamiento**

Los datos registrados en relación con la acción desarrollada por Cáritas Euskadi, permiten sacar conclusiones e identificar las dificultades que más están afectando a las personas y familias. En primer lugar, el acceso a la vivienda. El **elevado precio del alquiler de pisos y habitaciones, los requisitos para el acceso a los mismos y la insuficiente respuesta pública** a una necesidad tan acuciante como esta llevan a las familias a tener que compartir vivienda y/o habitaciones, y a enfrentar situaciones de exclusión complejas. A ello se une la incertidumbre con respecto a las prestaciones de vivienda, como consecuencia del cambio legislativo que las desvincula del sistema de Renta de Garantía de Ingresos. En relación con todo esto, la dificultad añadida del acceso al empadronamiento. Cáritas Euskadi insiste en visibilizar este problema en tanto en cuanto **el padrón supone la llave para el acceso a derechos y oportunidades de las personas.**

Por otro lado, **la carestía de la vida** ha tenido un gran impacto en la economía de las familias y, en mayor medida, en aquellas con ingresos precarios o insuficientes. La mayor dificultad de acceso a



los bienes básicos ha endurecido las condiciones de vida de muchas de las personas atendidas por Caritas y complicado sus procesos de inclusión social.

### **Exclusión y salud mental**

Otra de las conclusiones extraídas de los datos analizados por Caritas Euskadi es la **ausencia de bienestar emocional y problemas de salud mental** que acusan muchas personas atendidas, como consecuencia del sufrimiento padecido por las situaciones que atraviesan. Junto a ello, Caritas constata la dificultad añadida del acceso a tratamientos y recursos para hacer frente a su malestar.

### **Voluntariado**

**Caritas Euskadi contó en 2023 con el apoyo de 3500 personas voluntarias que, en un porcentaje destacado —el 73,2 %— continúan siendo mujeres.** Este es el importante número detrás del cual están todas aquellas personas comprometidas altruistamente en la dinamización de la acción y el acompañamiento a las personas atendidas por Caritas en servicios, recursos y programas: «Un año más, queremos agradecer y poner en valor el compromiso de todo el voluntariado de Caritas, mayoritariamente mujeres, que hacen posible la tarea de Caritas en su compromiso por la justicia social».

---

### **Más información:**

Begoña Rey Dorado | Caritas Bizkaia | 615 768 995 | [komunika@caritasbi.org](mailto:komunika@caritasbi.org)

Lide Álvarez Izaguirre | Caritas Gipuzkoa | 688 71 37 87 | [komunikazioa@caritasgi.org](mailto:komunikazioa@caritasgi.org)

Macarena Domaica Goñi | Caritas Diocesana de Vitoria | 688 71 37 87 | [comunicacion@caritasvitoria.org](mailto:comunicacion@caritasvitoria.org)



## PRENTSA-OHARRA

# Caritas Euskadik 34.690 pertsona artatu zituen 2023. urtean

- Caritasek arreta ematen dien bazterketa-arriskuan dauden pertsonen arazo nagusia etxebizitza eskuratzeko zailtasuna da
- Honez gain azpimarratzen du zaugarritasun eta pobrezia egoeran dauden pertsona askok ongizate emozional eta buru-osasunaren aldetik behar handiak dituztela

**Gasteiz, 2024ko maiatzaren 29a.** Caritas Euskadi osatzen duten hiru Caritas erakundeei dagozkien urteko jarduera-txostenak aldi berean aurkeztu aurretik, erakundeak balorazio bateratua egin du, bai azpimarratutako datu globalei buruz, bai ateratako ondorioei buruz, Euskal Autonomia Erkidegoan atzemandako pobrezia-errealitateen egoerak ikusarazteko.

Caritas Euskadik 2023an artatutako pertsonen kopurua ez da asko aldatu aurreko urtearekin alderatuta. Hala, Caritasek lurralde osoan **34.690 pertsona artatu ditu** (2022an, 34.288), eta horietatik **%55,3 emakumeak izan dira** (2022an, %56). Antzeko zerbait gertatzen da **laguntza ekonomikoen gastuarekin: 2023an 6.876.831,95€-koa izan zen** (2022an, 6.900.000€).

### **Etxebizitza eskuratzeko eta erroldatzeko zailtasuna**

Caritas Euskadiko ekintzari buruzko datuek pertsonak eta familiek dituzten zailtasun nagusienak identifikatzeko aukera ematen dute, baita horien inguruko ondorioak ateratzeko ere. Lehenik eta behin, etxebizitza eskuratzeko zailtasuna dago. Familiak etxebizitza edo gelak partekatzen eta bazterketa-egoera konplexuei aurre egitera behartuta daude, **etxebizitzaren eta gelen alokairuaren prezioak altuak direlako, horiek eskuratzeko baldintzak gogorrak direlako eta horrelako premia larri baten aurrean erantzun publikoa eskasa delako**. Horri guztiari etxebizitza-prestazioei buruzko ziurgabetasuna gehitu behar zaio, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren sistematik kanpo uzten dituen lege-aldaketaren ondorioz. Eta horrekin lotuta, halaber, erroldatzeko zailtasuna dago. Caritas Euskadik arazo hori nabarmendu nahi du, **erroldatuta egotea baita eskubideak eta aukerak eskuratzeko giltza**.

Bestalde, **bizimoduaren garestitzeak** eragin handia izan du familien ekonomian eta, neurri handiagoan, diru-sarrera gutxi edo eskasak dituztenen ekonomian. Oinarrizko beharrei aurre egitea eskuratzeko nekezagoa denez, Caritasek artatutako pertsona askoren bizi-baldintzak gogortu egin dira eta gizarteratzeko prozesuak ere zailagoak bihurtu dira.



### **Bazterketa eta buru-osasuna**

Caritas Euskadik aztertutako datuetatik atera dugun beste ondorio bat da artatutako pertsona askok **ongizate emozionala falta dutela, eta osasun mentaleko arazoak dituztela** egoera horiek eragindako sufrimenduaren ondorioz. Horrekin batera, Caritasek egiaztatu du ondoezari aurre egiteko tratamenduak eskuratzeko eta baliabideetara iristeko zailtasunak dituztela.

### **Boluntariotza**

**Caritas Euskadik 3.500 boluntarioren laguntza izan zuen 2023an, eta gehienak –%73,2– oraindik ere emakumeak dira.** Kopuru garrantzitsu honen atzean Caritasek zerbitzu, baliabide eta programetan arreta ematen dien pertsoneri laguntzeko eta ekintzak dinamizatzeko konpromisoa hartu duten pertsona guztiak daude. «Aurten ere, eskerrak eman nahi dizkiegu Caritaseko boluntario guztiei–gehienak emakumeak–, eta haien lanaren balioa nabarmendu, Caritasek justizia sozialarekin duen konpromisoa aurrera eramatea ahalbidetzen baitute».

---

### **Informazio gehiago hemen:**

Begoña Rey Dorado | Caritas Bizkaia | 615 76 89 95 | [komunika@caritasbi.org](mailto:komunika@caritasbi.org)

Lide Álvarez Izaguirre | Gipuzkoako Caritas | 689 87 45 75 | [komunikazioa@caritasgi.org](mailto:komunikazioa@caritasgi.org)

Macarena Domaica Goñi | Gasteizko Elizbarrutiko Caritas | 688 71 37 87 | [comunicacion@caritasvitoria.org](mailto:comunicacion@caritasvitoria.org)